

## LEHEN HAMAR LAGUN GINEN ETXEAN

[Joxe Zapirain](#)

(Errenteria, Gipuzkoa, 1873 - 1957)

Euskara batuan

1

Sentimendu asko dauzkat nirekin / orain kontatu beharrak, / ez dakit nola zuzenduko diren / egin dituzten okerrak; / pazientziatik ez naiz atera / Jaungoikoari eskerrak, / leku askotan jarri dituzte / tristura eta negarrak, / lehen hamar lagun ginen etxean / eta orain hiru bakarrak.

2

Atentzinoa izan ezazue / nik esandako hitzekin: / nire bihotzik ez da pozten / dirua eta gauzeekin, / ez dakigu noiz jarriko garen / kontsuelo eta pozarekin; / bi seme hilak, beste bi preso, / beste bi non den ez jakin, / milagro ez da ni egotea / kuido eta kezkarrekin.

3

Adierazi behar dizuet, / esango dizuet zinez, / tristura honetatik inola ere / apartatu ahal bagina; / atentzinoa izan behar dugu / errezo asko eginez; / bi seme hilak, beste bi preso, / beste bi non den jakin ez, / nire bihotza tristuran dago / ezin sendaturik minez.

4

Milagro ez da pena handia / izatea bihotzean, / negar-malkoak saltatzen zaizkit / inoiz gogoratzean; / ezeren mantzarik eta batere / kulpa gabeak hil ziren, / beste bi preso Ondarretatik / San Kristobala joan ziren, / zer kontatua izango dute / elkarrengana biltzean.

ZAVALA, Antonio (1975). [Zapirain anaiak. Juan Krutz \(1867-1934\), Joxe \(1873-1957\)](#). Donostia: Auspoa Liburutegia 123-124-125. (273-274).